

LUIS VILLASANTE KORTABITARTE
(1920-2000)

Egilea:

ELIXABETE PEREZ GAZTELU

Luis Villasante Kortabitarte Bizkaiko Erreterria auzoan jaio zen 1920ko martxoaren 22an. Oka ibaiak bereizten dituen Gernika eta Ajangiz bi udalerrri ziren garai hartan, nahiz 1943 urteaz geroztik udalerrri bakarra diren: Gernika. Erreterria auzoa Ajangizko barrutikoa zen arren, Gernika gertuago zutela-eta, hara jotzen zuten erreterriarrek; honek eragina izan zuen Luis Villasante mutikoaren eguneroko bizitzan.

Gurasoak zituen Jose Villasante Martínez (1866-1937) eta Luisa Kortabitarte Gerrikaetxebarria (1886-1926). Mena haraneko Cadagua auzokoa zuen aita, Burgoskoa, erdalduna; ama, berriz, Aulestikoa; sortzez eta mintzaeraz, bizkaitarra.

Sorterrian bizimodua ateratzea oso samurra ez zuenez gero –nekazarien semea izaki–, garai hartako beste hamaikak bezala, gaztetxo zelarik Kubara jo zuen aitak ogibidea irabaztera. Hantxe harrapatu zuen Estatu Batuen eta Espainiaren arteko gerrak. Soldadu ibiltzearen ondorioz zango batean zauritu eta herren utzi zuten betiko. Gerra amaitu zenean, 1898an, Menara itzuli zen.

Sorlekura itzuli ondoren, Felicitas Pérez Villasanterekin ezkondu eta seme bat izan zuten: Jose-Gonzalo Villasante Pérez, Luisen anaiordea izango zena. Baina handik gutxira ama hil eta bakarrik geratu ziren aita-semeak.

Jose Villasante errentalaria zen –ez guardia zibila, batzuek asmo gaiztoz hala esan bazuten ere–, eta merkatua zela edo bestelako zereginak zirela, Gernikara edo Bilbora joaten zen. Luisa Kortabitartek ere bere ahizpekin sarritan jotzen zuen Bilbora, bere ahizpetako batek Aulestin zuen dendarako salgaiak erostera. Hantxe



Luis Villasante Kortabitarte (1920-2000).

2

ezagutu zuten elkar eta, hogei urteren aldea izanik ere, hantxe sortu zen geroko ezkonbizitzaren lehen hazia.

1919an ezkondu eta denbora gutxira Errenteria auzora joan ziren bizitzera senar-emazteak, «Txautxi» izengoitiko aulestiarrek (Juan Jose Gerrikabeitiak) eraiki berri zituen etxe batzuetara. Etxe honetan jaio ziren Luis (1920/03/22) eta gero moja joango zen Maria Dolores arreba (1922/04/07). Ongi bizi izan ziren urte haietan, baina,

zoritarrez, ez zuen pozaldiak askorik iraun. 1926ko uztailaren 17a egun latza izan zen Villasante Kortabitartetarrentzat: hirugarren haurraz erditzean, ama eta jaioberria hil ziren. Luis Villasantek sei urte besterik ez zituen.

Amaren hutsunea nolabait betetzearren, Bizenta Kareaga Aulestiko lehengusua etorri zitzairen laguntzera. Hari esker ez zuen Luis Villasantek amarekin ikasitako euskara galdu.



Jose Villasante eta Luisa Kortabitarte, gurasoak. Aitarekin M^o Dolores; erdian Jose-Gonzalo (atzean) eta Luis (1924).

Jaunartze egunean (1927).



Aita Villasantek, beraz, txiki-txikitatik euskara eta gaztelania eguneroko hizkuntza izan zituen: gaztelania, aitarengandik zetorkion; euskara, berriz, amaren bularretik edoski eta Bizentarekin sendotu zuen gero.

Ez da, bada, egia inoiz hortik zabaldu dana, hots, ni sortzetik erdaldun hutsa nazala. Euskerea eta erdereea, bi-biak, entzun, ikasi eta erabili ditut bai etxean eta bai kalean txiki-txikitatik. (*Euskera* 37 (1992,2) 710).

Hitz hauek 1992an Gernikan «seme kuttun» izendatu zutela eta egin zioten omenaldian Villasantek esanak dira. Iturri honetara joko dugu lan honetan zehar, jakingarri asko emateaz gain, Gernikako udalean esan beharrekoak plazaratzeko Villasantek berak aukeratutako moldea dela eta: euskaraz idaztean beti euskara batuaz baliatu izan denak sorterriko euskalkia jo zuen begiz bere oroitzapenak eta kanporatzeko.

3

1992ko Gernikako omenaldian, Bizenta Kareagarekin.




4

Lau urte zituela hasi zen eskolara joaten. Gernikako moja karmeldarren ikastetxean egin zituen eskolaurreko lehen urratsak, sei urte bete zituen arte. Gero, anaiorde Jose-Gonzalo joaten zen Agustinoen ikastetxera eramanezuen aitak, baina hango giroa «aberaskumeena» bide zen eta ez zitzaion Luis mutikoari oso atsegin; hori dela-eta Luisek berak eskatu zion aitari eskola hartatik ateratzeko. Bi urte besterik ez zituen eman eskola honetan. 1929. urtea zen.

Errenteria auzokoek ez zeukaten Gernikako eskola publikoetara joaterik, Ajangizko udalerrikoak izaki; Ajangizko eskola, berriz, urrutitxo zeukaten. Nora jo? Luis Villasanteren aitak –pentsamoldez liberala, nonbait– Juan Ansotegi gernikarraren eskolara bidaltzea erabaki zuen. Ansotegi jauna maisua zen eta Arantzazuko fraide izana. Organo-jolea ere bazen eta Gernika inguruko herrixketan ibiltzen zen elizkizunetan eta jotzen. Baserritarrek ongi ezagutzen zuten eta horregatik –eta eskolen ordain gutxi kobratzen omen zuelako– baserritar askok bere umeak bidaltzen zituzten Ansotegiren eskolara. Hementxe izan zuen aukera Luis Villasantek mutil euskaldun asko eskola-lagun izateko.

Beste umeek bezalaxe, jolasean ematen zuen eguna, besteak beste, txalupak egiten eta. Baina eliz giroan ere murgiltzen hasia zen pixkana-pixkana: dotrina ikasten, meza mutil... Hau da, bere bizitza osoko ibilbidearen hazia urte hauetan ernaltzen hasi zitzaion: *erlijio-bizitzaren hazia*.

Gernikan ikasia askietsi ez eta, aitak nahi zuen Luisek ikasketa sakonagoak buru zitzala. Lagun baten aholkua aintzakotzat hartuz, Arantzazura bidaltzera deliberatu zen. Arantzazun sartzeko, ordea, azterketa egin behar izaten zen. Luis Villasantek eta auzoa zuen Jose Antonio Gandariasek azterketa prestatzeari ekin zioten buru-belarri. Azterketa gairiditu eta Jose Villasante aitak berak lagundu zien bi ikasleei Arantzazuko bidean. 1931ko abuztuaren 18an iritsi ziren Arantzazura. Hemendik aurrera, Luis Villasanteren bizitzan aro berri bat hastera doa: Arantzazurekin betiko lotuko duen lehen katebegia.



GERRALDIA

1931tik 1934ra, oporrik gabeko hiru urte egin zituen Arantzazun Luis Villasantek, orduan irakasten zituzten gaiak ikasten eta sakontzen: erlijioa, latina, gaztelania, frantsesa, grekoa, historia, geografia, natur zientziak, matematika, kaligrafia, kantu gregorianoa, musika... Makinaz idazten ere ikasi zuen. Ordu arte bizitako giroaren arras bestelakoan murgildu zen. Baina besterik ere bizi izan zuen: euskalkiekin topo egin zuen. Urteak pasata, honela geratu zaio oroimenean itsatsia Villasanteri orduko bizikizuna:

Euskera kontuan egia da hasierean torpetu egin nintzala; han euskerazko sermoiak eta abesti batzuk entzuten genduzan, bai, baina ikasketa danak eta bizitza osoa erderaz zan (edo latinez), eta mutikoei inoz entzuten geuntsen euskerea bere guztiz bestelakoa begitanduten jakun. Euskalkiekaz topo egitea izan zan hori neretzat, eta tajuzko euskal eskola hartu bage, oztopo hori ezin gainditu. (*op. cit.* 711. or.).

Giza ikasketak amaitzeko falta zituen beste bi urteak burutzerako Foruko

ikastetxera jo behar izan zuen. Hemen, Arantzazun ikasia sakontzeaz gain, euskara ere ikasteko aukera izan zuen. Azken ikasturtea 1936ko uztailaren 17an amaitu eta etxera joan zen oporretara. Egin dezagun kontu hurrengo egunean, 1936ko uztailaren 18an, hain justu, piztu zela zorigaitzeko gerratea.

1936ko udako oporrak bukatuta, Zarautza jo zuen nobiziadoa egitera. Baina Gipuzkoan ez zen giro: gerratea gori-gori zegoen. Hori dela medio, fraidegaiei agindu zieten etxera itzultzeko. Villasantek Gernikan egin zituen 1936ko abuztuaren hasieratik 1937ko maiatza arteko egunak. Jose-Gonzalo anaia zaharrena UGTko milizianoekin borrokatzera joana zenez gero, galleta-fabrikan zuen lanpostua hutsik utzia zuen. Luisek ordezkatu zuen anaia administrazio-lanetan arituz, kobratu gabe aritu ere. 1937ko apirilaren 26ko arratsaldean –Luis Villasante bazkari legea egiteko asmoz lanetik etxera itzuli zenean– hasi zen gernikar guztiek amets gaizto gisa bizi izan zuten beldurgarritzko suntsitzea.

6

Kanpaiek sua iragarri zutenean, etxetik atera eta gordeleku batera jo zuten Villasantetarrek. Aita ondoezik zebilen aspalditik, eta, bonba-jaurtitzearen geldiune batean, Luis etxera joan zen aitarentzako aulki bat hartzera. Orduantxe ikusi zuen bere begiz herrian gertatzen ari zen txikiztoa: bazter guztiak suak hartuta, jendea ihes egin nahian, dena nahastea, sua eta odola. Ahal zuen moduan saiatu zen sugarretan zegoen etxetik zerbait salbatzen, baina aitaren ordularia baizik ezin izan zuen onik atera errauts artetik. Etxerik eta ondasunik gabe geratu ziren, beste makina bat gernikar bezalaxe.

Bilboko etxe batean hartu zituzten; bizilekua bazuten, baina ez askoz gehiago: ez jatekorik, ez deus. Aitak urdaileko ultzera izaki, esnea behar zuen bizitzeko, eta Luis ibiltzen zen baserrietara joaten aitarentzako esnea etxeratuko bazuen. Gorriak eta bi ikusi zituzten egun haietan.

1937ko maiatzaren hondarrean itzuli zen berriz Luis Zarautza, eta hantxe hartu zituen fraide jantziak, 1937ko maiatzaren 29an. Han zegoela iritsi zitzaion berri lazgarria: ekainaren 7an aita hil zen.



Jose-Gonzalo eta M^ñ Dolores senideak gerrate-garaian. Gernika, 1938.

Nobiziadoa egin eta hurrengo urteko maiatzaren 31n profesatxikia egin zuen. Hurrengo urratsa filosofia ikastea zen, baina 18 urte zituenez gero, abuztuan soldadutzara deitu zuten. Urte bete egon behar izan zuen soldadu, Burgosen denbora gehiena. Ez zuen, halaz guztiz, frentera joan behar izan, makinaz idazten bazekienez gero, bulegoan jarri baitzuten lanean. 1939ko abuztuan, gerra amaituta, fraideei ikasten jarraitzeko baimena eman zieten eta Luis Arantzazura itzuli zen.

GERRAOSTEA

Handik pixka batera Oliteko komentura bidali zuten beste ikaskide batzuekin batean (besteak beste Salvatore Mitxelena poeta handiarekin) eta gogoz ikasteari lotu zitzaion: etika, metafisika, soziologia, natur zientziak, fisika, kimika... Jose Benito Mendia Lasa zarauztarrak, berriz, kosmologia, psikologia eta euskara irakatsi zizkien. Irakasle honek piztu eta sendotu omen zuen Villasanterengan euskararako gogoia. Nafarroako herri horretan, erdi ezkutuan, hasi zen euskal lanak eta euskarari buruzkoak irakurtzen eta aztertzen: Sebero Altubereren *Erderismos*, Resurrección M^a de Azkueren *Morfología Vasca*, Axularren *Gero*... Etxeko euskara zekarren Luis Villasanteri hementxe sortu zitzaion urteek zapuztuko ez zuten adiskidetasun leiala, euskal literaturaren adiskide min bilakatu zuena.

1942. urtean bukatu zituen Oliteko ikasketak, eta Arantzazura itzuli zen. Hemen, 1942ko abuztuaren 30ean, egin zuen behin betiko profesatxikia nagusia, fraide-bizitzarekin betiko lotu zuena.

Gerraren ondorioz Arantzazun irakasle faltan zeuden. Comillaseko Apaiztegira bidali zituzten Arantzazuko



Ikasle garaian, Arantzazun (1941-1942 ikasturtea). Behetik hasita bigarren lerroan, eskuinetik ezkertera: Aita Jose Antonio Gandarias (idazlea eta editorea), **Aita Luis Villasante**, Aita Demetrio Garmendia (idazle eta sermolari trebea), Aita Eugenio Agirretxe (idazle eta sermolari trebea), Aita Xabier M^ñ Alvarez de Eulate (margolari ospetsua).

hainbat fraide, Aita Villasante tartean, ongi trebatu ondoren Arantzazura itzuli eta eskolak emateko. Santanderreko apaiztegi honetan batez ere Teologiaren alorra landu zuen. Lizentziaturako lana Duns Scotori buruz egin zuen. Ez zituen, ordea, ikasketak hemen amaitu nahi izan eta tesia ere prestatzen hasi zen. Comillasen zela apaiztu zen, baina

Meza Berria emateko amaren sorterrria, Aulesti, hautatu zuen. Eta halaxe egin zuen 1945eko abuztuaren 15ean, Amabirjinaren egunean.

Comillasen teologia sakontzen beste bi urte egin ondoren, Arantzazurako bidea hartu zuen berriz ere. 1947ko ikasturtearen hasieran Aita Villasante Arantzazuko teologiako irakaslea zen. Eta horretan jardun du 1978 arte.

IRAKASLE ETA MAISU

Arantzazun irakasle dugu, hortaz, Aita Villasante, eta irakasletzak, hain zuzen ere, beste jardunbide batera bultzatu zuen: *pedagogiaren alorrera*. Teologia ikasteko lagungarri gerta zitezkeela eta, 1949tik 1952ra hiru liburuxka prestatu zituen ikasleentzat. Alabaina, ez da hemen agortzen Aita

Villasanteren irakasteko kezka. Teologia irakasteaz gain, euskara irakasten ere ibili zen hainbat urtetan. Honek ondorio zuzena izan zuen Villasanteren langintzan eta euskarari buruzko gogoetetan, ikusiko dugun bezala. Baina hau ulertzeko, Arantzazun zein giro bizi zuten azaldu beharra dago.



Urteak igarota ere, Villasantek ez du eten nahi izan irakaskuntzarekin zuen lotura. Hemen Lizarrako ikastolako umeekin (1990/09/28).

Nahiz eta gerra ondoko urteak latzak eta euskal gauzen aldekoak ez izan, fraide gazte batzuek bazuten Arantzazun euskal giroa sortzeko eta euskara bultzatzeko gogoia eta desio bizia: BAI taldea eratu zuten eta, erdi isilean, aldizkaritxo bat ateratzen ere hasi ziren. Aita Villasante ere horretan sartu zen buru-belarri:

Gerra harek bere ikutua itzi eustan. Komentuko fraide gazte batzuen artean orduan, hain zuzen, sortzen da euskal giro bat. Herri honen ondarea dan euskerea landu, zaindu eta indartu behar dogulako kezkea, alegia. Euskaltasuna nigan berpizteko, kezka horrek asko lagundu eustan, Aita I. Omaetxebarria (gernikarra berau bere), Aita B. Mendia, Aita Salvatore Mitxelena, K. Iturria, E. Agirretxe, J.A. Gandarias etab., danai asko zor deusiedala ezin dot ukatu. (*op. cit.* 711. or.).

Talde aitzindari honen ikasle izanek, hain zuzen ere, sortu zuten 1956an *Jakin* aldizkaria, oraindik ere bizirik dagoena.

Aita Villasante euskara irakasten hasi zen, beraz, baina zein irizpideren arabera ekin lanari?, nola antolatu eskolak?, nola osatu taldeak?, zer eta nola irakatsi? Horra erantzun beharreko funtsezko galderak.

Villasantek topatu zuen lehen gertakaria berak aurretik bizi

izandakoa zen: Arantzazura zihoazen ikasleak batik bat Gipuzkoatik eta Bizkaitik joanak ziren, nork bere euskalkia bai, baina besterenaren berri ia ez zuela. Taldeak euskalkien arabera osatu beharrean, ikasleei besteen euskalkiak entzuteko eta ikasteko aukera eman behar zela pentsatu zuen, euskalkien arteko amildegia ez zedin areagotu. Hementxe daukagu Villasanteren etengabeko kezketako baten adierazgarria: *euskararen batasuna*.

Bestetik, berriz, euskarazko eskolak euskaraz eman behar zirela erabaki zuen. Baina beste urrats bat ere egin behar zela garbi zeukan: euskaraz landa, ikasketa arrunteko beste gairen bat ere euskaraz ikasi behar zuten ikasleek; alegia, euskara bakar-bakarrik euskal gauzekin lotzeko ikuspegia baztertu, eta edozein gairen gainean euskaraz aritu ahal izatea, edo aritu ahal izateko bidean jartzea hartu zuen gogobide. Hau dugu bere lanetan han eta hemen aurkituko dugun beste ildo nagusia: *euskara edozertarako mintzabide bilakatzea*.

Eta hau guztia nola gauzatu?

Orduko bitarteko urriak gogoan izanik, Villasante gogotik saiatu zen ikasleei eskolak aspergarriak gerta ez zekizkien. Garai hartako, eta are geroko, joera nagusiaren kontra,

hizkuntza irakasteko gramatikari lehenasuna eman beharrean, ikasleak hizketan, irakurtzen eta idazten laguntzeko bitartekoak lantzen ahalegindu zen. Asmo honen fruituak dira Villasantek itzuli, atondu edo sortutako lan hauek, besteak beste: *Kattaliñen gogoetak* (gipuzkeraz) (1958), Txomin Agirreren *Kresala* eta *Garoa*, Felix Bilbaoren *Ipuin barreka...* irakurgai moldatuen artean, eta *Paradigmas de la conjugación vasca* (1955) eta *Euskal gramatika llabur eta idazleen pusketa hautatuak* (1956) gramatika-lanak, bere burutik atereak. Hementxe ikusten dugu, berriz ere, arestian ahotan genuen pedagogiak sorrarazitako kezkarri Villasantek eman erantzuna eta, era berean, berak mutil kozkorretan bizitako «oztopoa» geroko ikasleek bizi ez zezaten aurkitutako irtenbidea: «taxuzko euskal eskolak» antolatzea, alegia.



Irakasle aritzeak (eskolak eman, lehengaiak prestatu...), halaz guztiz ere, ez zion galarazi barren-barrenean zeraman beste isuri bati ere heltzeko: *ikertzeari*, alegia. Comillasen hasi, baina bukatu gabea zuen tesiari ekin zion. 1951n burutu zuen Zumaiako moja baten bizitza mistikoari buruzko tesia: *La Sierva de Dios M^a Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana (1873-1921). Estudio místico de su vida*. Moja hau Villasanteren betiko bidelagun bilakatua dugu. Horren erakusgarria da 1992an Luis Villasanteren omenez Euskaltzaindiak argitaratutako *Iker-6* lanean, J. A. Arana Martijak bildu zuen

11



Gernikako udaletxean, omenaldiaren egunean haurtzaroko lagun batekin (1992/07/24). Egun horretan Euskaltzaindiak Villasanteren omenez argitaratutako *IKER-6* liburua aurkeztu zuten.

12

bibliografian, zerrenda luzeko azkena (744garrena!), 1990ekoa, Aita Villasantek paratutako *M^{re} Ángeles Sorazu: Autobiografía espiritual* lana dela, hain zuzen ere.

Etenik gabe jorratuko dituen ildo batzuk ditugu, hortaz, tesigaiak bilduak: hainbat moja eta elizgizonen bizitza, eta mistika, lanez aritzean ikusiko dugun bezala.

Nahiz eta kanpoan ibilia den (Valladolid, Akisgran (alemanez ikastera), Lur Santuetara erromes, Paris, Erroma, Portugal, Suitza...), Aita Villasantek beti Arantzazuko bakera itzuli nahi izan du; hortxe aurkitu zuen betiko bakea 2000.eko abenduaren 2an.



Luis Villasante Parisen (1948 inguruan).



Lehena ezkerretik hasita, **Aita Villasante**, Arantzazu berritzen ari ziren langileekin (1952). Luis Villasantek irakurtzen eta idazten irakasten ziren langileei.

FEDERIKO KRUTWIG: BIDE-ERAKUSLE ETA BIDELAGUN

Esana dugu euskarak, honen irakaskuntzak, etorkizunak, kulturaren adierazpide izateak biziki kezkatzen zutela Villasante. Eta hasia ere, hasia zen artikuluak argitaratzen.

1950. urtean, tesia argitarabidean zuela eta, Bilbora joaten omen zen moldiztegiko probak zuzentzera. Haietako egun batean, *La Gaceta del Norte* egunkarian irakurri zuen Federiko Krutwigek Euskaltzaindian

sartzeko hitzaldia egin behar zuela. Hitzaldiaren gaia ezin interesgarriagoa iruditu zitzaion Villasanteri: kulturako hitzak nola erabili euskaraz.

Hitzaldi haren bitartez izan zuen Villasantek Euskaltzaindiaren berri. Hain erakargarria egin zitzaion hitzaldiaz mintzatzeko Krutwigeng etxera jo zuen, eta honek, ezin hobeki hartzeaz gain, euskara eraberritzeko zituen asmoak azaldu zizkion. Krutwigekin izandako hizketaldiak sekulako eragina izan zuen Villasanterengan. Hain Villasanteren

13

Nazioarteko Dialektologia Biltzarra (1991/10/21). Luis Villasante euskaltzainez inguratuta. Lehen lerroan, ezkerretik hasita: Juan Mari Lekuona, Jose Mari Satrustegi, Jose Antonio Arana Martija, **Luis Villasante**, Federiko Krutwig, Henrike Knörr. Bigarren lerroan: Txomin Peillen, Eusebio Erkiaga, Patxi Altuna, Francisco Ondarra, Pello Salaburu, Patxi Zabaleta, Alfontso Irigoyen; honen atzean zutik: Piarres Charritton. Patxi Zabaletaren atzean, Xabier Diharce «Iratzeder».



14

bestelakoa zen Krutwig guztiz gogaide sentitu zuen aita frantziskotarrak, eta kezka berak eraginda, Euskaltzaindiaren mundura hurbiltzen hasi zen. Esan daiteke, hortaz, Krutwig izan zela Villasanteri Euskaltzaindirako bidea erakutsi ziona.

Nolanahi dela ere, gogoan behar da izan orduko Euskaltzaindia ez zela, inondik ere, oraingoa bezalakoa: gerraren ondorioz euskaltzain batzuk deserrian, erakundea antolatu gabe, gizartean ere ez zuen ia oihartzunik... Horixe zen Villasantek aurkitu zuen Euskaltzaindia.

Euskaltzaindiak berritu beharra zuen erremediorik gabe. Horren lekuko dira urte horietan egindako izendapenak; besteak beste, honakoak: 1950eko urrian Antonio M^a Labaien, Pierre Narbaitz, Pierre Charritton, Guillaume Epherre eta Koldo Mitxelena euskaltzain urgazle izendatu zituzten (gero euskaltzain oso izatera iritsi ziren). Luis Villasante ere, M^a Paz Zigandarekin batean, 1951ko otsailaren 23an izendatu zuten euskaltzain urgazle. Handik gutxira, 1951ko irailaren 25ean, euskaltzain oso izatera iritsi zen, 1950ean hila zen Julio Urquijo euskalariaren orde.

Euskaltzain oso izatera iristen denak sarrera-hitzaldia egin behar izaten du, eta beste euskaltzain oso batek beste hitzaldi batez erantzun. Halaxe egin zuen Luis Villasantek, Bizkaiko Diputazioan 1952ko maiatzaren 23an. «Literatur-euskara Laphurtarr Klassikoaren gain eratua» gaia jo zuen begiz horretarako, eta Federiko Krutwig izan zuen erantzun-emaile. Krutwigek erantzunean esanak ez ziren denen gustukoak izan, elizaren eta orduko agintarien jokamoldea gogor salatu baitzituen, eta, horren ondorioz, ihes egin behar izan zuen, polizia atzetik zuela. Gertakari honek berebiziko samina utzi zion Villasanteri bihotzean.



EUSKALTZAINDIAN LANEAN: IRAGANA ETA ETORKIZUNA UZTARTZEN

Villasante Euskaltzaindiaren ibilbideari lotu zitzaion: hileroko bilkuretara joan, biltzarretan txostenak aurkeztu... Hauezz guztiez gain, euskal idazle klasikoen eta euskalarien lanen azterketa sakonean ere aritu zen: Añibarro, Bonaparte, Beobide anaiak, Etxeberri, J. K. Etxeberria, Etxepare, Iztueta, Larramendi, Leizarraga, Ubillos, Mogel, Ulibarri, Uriarte... aspaldikoenak eta Altube, Orixe, Urquijo eta, batez ere, Txomin Agirre gerokoenak hartu zituen aztergai, beste hamaikaren artean. Baina, oroz gain, Axularren aztertzaile aparta bilakatua dugu Villasante.

Horren lekuko ditugu «Despojo sistemático de la lengua de Axular» (1956, 1957, 1959), «Euskal gizonak: Pedro Axular» (1959), *Axular, Mendea, Gizona* (1972), edo *Axular-en Hiztegia* (1973), besteak beste.

1952an sarrera-hitzaldiaren egile izan zen Luis Villasanteri handik 9 urtera erantzun-emaile izatea egokitu zitzaion. Aita Villasante Bizkaiko erreteriarra izan baitzen, hain zuzen ere, 1961ean euskaltzain oso izendatu zutenean Koldo Mitxelena Gipuzkoako erreteriarra egin hitzaldiari erantzun ziona. Handik urte batzuetara, beste euskaltzain oso batzuen sarrera-hitzaldiei ere erantzun zien: 1975ean Alfontso Irigoieni, 1990ean Jose Antonio Arana Martijari.

15

Euskaltzain osoak (1986/12/19). Ezkerretik hasita, zutik: P. Charritton, Emile Larre, F. Ondarra, "Iratzeder", P. Salaburu, P. Altuna, F. Krutwig, A. Irigoyen, Jean-Louis Davant. Eserita: Juan San Martín, J. M. Satrustegi, **Luis Villasante**, Jean Haritschelhar, H. Knörr, Koldo Mitxelena.



EUSKARAREN BATASUNA. LEHEN HARRIA: ARANTZAZUKO BILTZARRA (1968)

Euskara biziko bazen batzea guztiz ezinbestekoa zuela aspalditik ikusia zuten euskalari askok; Euskaltzaindia sortzeko (1918an) arrazoi eragile nagusia horixe izan zela ezin dugu ahantzi. Kontua da, ordea, urteen joanean pentsatutako edo saiaturako biderik batek ere ez zuela erdietsi errotzea, eta batasuna egin gabe zegoela.

Gerra bukatu eta handik urte batzuetara, giroa barexeago zegoenean, berriz ere, gero eta ozenago entzuten hasi ziren batasun-premia aldarrikatzen zuten ahotsak:

Gerra ostean, barriz, euskal batasunaren auzi honek halako birmoldaketa bat hartzen dau Krutwig, Mitxelena, Aresti, Oskillaso, Berriatua (erdi gernikarrak honeek biok) eta beste batzuen eraginez. Gaur garbi ikusten dogu euskerea hizkuntza bat dala eta ez hizkuntza asko. Euskalkiak gora-behera, hor azpian batasun sendo bat daukala euskereak. Guztiona dan oinarri horretan oinarriturik eraiki nahi da, bada, euskara batua, zenbait idazmotatan erabilteko beharrezko lez ikusten dan tresna edo lanabes hori. (*op. cit.* 712. or.).




Ezkerretik hasita: On Manuel Lekuona, A. Irigarai, G. Aresti, J. San Martin, A. Arrue, A. Zubikarai, A. Irigoyen, A. Zabala, Artola, **L. Villasante**, Bilboko jatetxe batean (1963/10/25).

«Literaturako euskara batua» finkatu behar zela ikusia zuten, bada. Eginbeharrari ezin utzizko eta ezin berandutuzko iritzirik, hainbat euskalariren bultzadari esker, gaur dugun euskara batu edo estandarraren lehen urrats irmoak egiteari ekin zioten.

Gabriel Aresti izan zen 1967an Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan egin zuten bilera batean, erakundearen urrezko ezteiak zirela eta egingo zituzten ospakizunen artean, 1968ko biltzarra euskararen batasunarena izan zedila mahai gainean jarri zuena.

Gaia onartuta, Koldo Mitxelenaren bizkar utzi zuten batasunari buruzko txosten nagusia ontzea. 1968ko urriaren 3tik 5era Arantzazun egin zuten biltzar gogoangarri hartan,



1968ko Arantzazuko «Euskaltzaleen Biltzarra», biltzar horretan eztabaidatu ziren euskara batuaren lehen urratsak. Biltzarrean esku hartu zuten hainbat kide. 1) Plazido Mujika; 2) Juan Garmendia Kortadi "Zeleta"; 3) Piarres Lafitte; 4) **Luis Villasante**; 5) Imanol Berriatua; 6) Manuel Lekuona; 7) Antonio M. Labayen; 8) Jose A. Arkotxa; 9) Julita Berrojalbiz; 10) Balendian Aurre-Apraiz; 11) Eufronio Agirre (?); 12) Bernabe Berezibar (?); 13) Koldo Mitxelena; 14) Karmelo Etxenagusia; 15) Andoni Amutxategi; 16) Ambrosio Zaratain; 17) Nicolás Barrenetxea (Aita Julian de Yurre); 18) Santiago Onaindia (?); 19) Balendin Lasuen (?); 20) Juan Mari Lekuona (?); 21) Gabriel Aresti; 22) Ibon Sarasola; 23) Mikel Zarate; 24) Julene Azpeitia; 25) Isidoro Bastarrika; 26) Patxi Altuna; 27) ... Pertika (semea); 28) Josu Oregi; 29) Jose Basterretxea "Oskillaso"; 30) Piarres Xarriton; 31) Bitoriano Gandiaga (?); 32) Joan Mari Torrealдай (?); 33) Emile Larre; 34) Ramon Saizarbitoria; 35) Rikardo Arregi (?); 36) Juan San Martin; 37) Pedro Berrondo.

Koldo Mitxelenaren eta Jose Mari Satrustegiren txosten horrezaz gain, Villasantek ere beste bi aurkeztu zituen: «Batasunari buruzko bibliografia» eta «Antziñako euskal hitzen formaz», hagitx garrantzizkoak biak, euskara batuaren zurajea eta lehen harriak paratzen hasteko.

Arantzazuko biltzarrean erabakiak guztien gogoak bildu ez bazituen ere, hor egin zituen Euskaltzaindiak, bere historian lehen aldiz, etenik izan ez duten batasun-bidean hasteko lehen urratsak.

Badira bide honetan Villasanteren nortasunaz eta egitatez argia ematen diguten izpi aipagarriak. Egia da Villasanteren (eta Arestiren, besteak

beste) batasun-eredua –lapurtera klasikoaren eredua– ez zela biltzarrean gailen atera zena, Mitxelenaren eta besteren gipuzkera-nafarrera, zabal esan, hartu baitziren ardatz. Baina zalapartaka eta aritu zirenek ez bezala, Luis Villasantek onartu zuen gehienek erabakia, eta, onartu ez ezik, baita bide horren bultzatzaile eragingarri bilakatu ere. Jarrera honen erakusgarriak dira 1968ko abenduko «Hacia el vasco literario común» artikulua, eta, batez ere, «Luis Elizalde» sailean argitara emandakoak: *Hacia la lengua literaria común* (1970), *La declinación del vasco literario común* (1972), *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974), *Sintaxis de la oración compuesta* (1976), *Estudios de sintaxis vasca* (1978), *Sintaxis de la oración simple* (1980), *La H en la ortografía vasca* (1980), edo bere euskarari eta batasunari buruzko gogoeta sakona biltzen duen ordenu edo testamentutzat jo daitekeen *Euskararen auziaz* (1988).



«Luis Elizalde» saila, euskara batuaren zutabeak.

Horrezaz gain, ezin da aipatu gabe utzi Koldo Mitxelena –batasunaren eragile nagusietakoa– Parisko Sorbonan irakasten ari zenez gero, Luis Villasantek hartu zuela batasun-bidea bultzatzeko eta zabaltzeko ardura eta erantzukizuna.

Biltzarraren ondoren, bada, bi urte luzetan, euskalaritzan giroa bizi-bizia zegoen, bai baitziren batasun-bide horren aurkako sutsuak, batez ere H letra erabiltzearen kontrakoak. Garai hartan On Manuel Lekuona zen euskaltzainburua. Giroa hain gaiztotuta ikusirik, konponbideren bat bilatzeko eta, Euskaltzaindiaren araudiak hala aginduta, karguak berritzeko, 1970eko uztailaren 29an, Donostian Euskaltzaindia batzartzeko deia egin zuen.

Bilera horretan zuzendaritza berria izendatu zuten: Luis Villasante hautatu zuten euskaltzainburu eta Jean Haritschelhar, Juan San Martin, Eusebio Erkiaga eta Alfontso Irigoien zuzendaritzako kide. Kargu-berriztatzea handik hiru hilabetera egin zuten: 1970eko urriaren 25ean, Maulen.

Ez zuen Villasantek denbora alferrik galdu nahi izan. Kargua hartu zuen egun berean, aspaldi samarretik hausnartzen zeramana jendarteratzeko baliatu zuen hitzaldia: Euskaltzaindiak sustraiko eraberritzea ezinbestekoa zuen, aurrera egingo bazuen. Luis Villasante lemazain duela, Euskaltzaindia aro berri bat hastera doa.

19



Maule, 1970/10/25. IKER-6 liburutik hartua.

EUSKALTZAINDIA ERABERRITZEN LEMAZAIN

Euskaltzaindia eraberritzea; horra Villasanteren burubidea. Nondik jo, ordea?

Gai honi heldu zion «Euskaltzaindiaren egituraz» izeneko txostenean, euskaltzainburu izendatu eta hilabetera.

Hasteko, Euskaltzaindiaren osoko bilkurak egiteko modua aldatu zuen, eragingarriagoak eta probetxu handiagokoak gerta zitezten.

Bestetik, Villasante ederki ohartu zen erakundeak aurrera egiteko oinarrizko ikerlanak behar zituela; euskaltzain osoek erabakiak zentzuz hartzeko premiazkoa zutela langaiaren berri izatea. Prestalan horretarako batzordeak eratu behar zirela ikusi zuen. Batzorde hauetan euskaltzain osoez gain, euskaltzain urgazleak eta hainbat euskalarik lan egiteko aukera izango zuten. Horrela, lan-eremuak banatuta, hainbat batzorde sortu ziren: Euskara, Idaztarauak, Aditz Batua... Arian-arian, erakundearen antolamenduan eta bizibidean sekulako garrantzia hartu duten batzordeok Euskaltzaindiaren bihotz bilakatu ziren.

Bazegoen besterik berritzekorik: Euskaltzaindiaren Barne-Araudia,

besteak beste. Lan horri ere berehala ekin zion, ezin aurrera eraman baitzezakeen desio zuen eraberritzea arauak aldatu ezean: eginkizun honetan Jose Luis Lizundia idazkariordea izan zuen ezin utzizko lagun.

Euskaltzaindiaren egoitza nagusia Bilbon zegoen eta Donostian eta Gasteizen ordezkari-tza-bulegoak zituen. Garai honetan Iruñera eta Baionara ere hedatu zuten egoitza-sarea.

Batzordeen antolamenduak eta egoitzak hedatzeak, Euskaltzaindiaren lan egiteko modua aldatu eta egokitzeaz gain, beste ondorerik ere izan zuen: Euskaltzaindia gizarteratzeko, erakundea eta gizartea hurbiltzeko bidea ere bazen.



«Bai Euskarari» kanpainako jaialdian, Luis Villasante San Mamesen agiria irakurtzen (1978/06/17).



Gipuzkoako Diputazioan 1988ko abenduaren 30ean, kargu-aldatze egunean. **Luis Villasante**, lehengo euskaltzainburua, eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburu berria, hautesontziaren ondoan.

«Villasanteren aroko» –honela deitzea badago– berrikuntza hauei guztiei esker, bere bizitzan inoiz ez bezala, Euskaltzaindia lanean tinko hasteko egokieran zegoela esan daiteke. Bi urte soilen buruan, Villasante gidari zuela, finkatu zituen Euskaltzaindiak aurrera egiteko zimentarriak, «Euskaltzaindikoko sailen eta batzordeen organigrama» lanean Villasantek jaso zuen bezala.

Erakundea antolatuta zegoela-eta, 1972an egin behar zituzten hauteskundeen atarian kargua utzi nahi izan zuen Villasantek, baina Koldo Mitxelenak, Juan San Martinek eta beste euskaltzain batzuek jarraitzeko eskatu zioten. Eta Villasantek onartu. 1972ko hauteskundeetan berriz ere

hautatu zuten, eta halaxe gertatu da 1988 urte arte egin dituzten hauteste guztietan, Jean Haritschelharrek lekukoa hartu duen arte, alegia.

Euskaltzainburu izan den bitartean garrantzi handiko beste gertakaririk ere izan da.

Lehenik eta behin aipatzekoa da Euskaltzaindia ez zela erakunde ofiziala, ez zuela aginte politikoaren onespren eta aitortza berariazkorik. Gernikako Estatutuaren ondorioz, 1976ko otsailaren 26ko dekretuan, Espainiako Erregeak erakunde ofizial bilakatu zuen, honek dituen ondorio guztiekin. Ildo beretik ez da zokoratzekoa aipatu estatutuan eta Nafarroako Amejoramentuan

Euskaltzaindiari aitortzen zaiola, hain zuzen ere, euskara-kontuetan aginpidea izatea.

Baina erakundeak lan egiteko beharrezkoa zuen dirua nondik eskuratu ere ez zen bazterrean uzteko moduko kezka. Diru-iturriak bilatzeari esker –1978ko *Bai euskarari* kanpainari esker, batez ere– 1980an antolatu ahal izan ziren Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak eta izan zuten Euskaltzaindiaren egoitza berria bilatzen hasteko modua, beste gauza batzuen artean. 1985ean, azkenik, Bizkaiko Diputazioarekin egindako hitzarmenaren ondorioz,

Euskaltzaindiak lortu zuen egun duen Bilboko Plaza Barriko egoitzaz jabetzea (1991ko apirilaren 26an estreinatu zuten). Bestalde, 1989an Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Araba, Gipuzkoa, Bizkaiko diputazioek Euskaltzaindiarekin hitzarmena egin zutenetik urtero-urtero Euskaltzaindiak badu diru-iturririk bere egitasmoak aurrera eramateko.

Bestalde, Villasantek oso argi zeukan Euskaltzaindiaren eginkizunetako bat euskarari buruzko ikerlanak bultzatzea zela. Areago, euskara batuaren oinarriak taxuz



Euskaltzaindian, Bilboko Plaza Barriko egoitza berrian, 1994/11/25ean, Xabier Kintanak sarrera-hitzaldia egin zuen egunean. Ezkerretik hasita: J. L. Davant, J. M. Lekuona, J. A. Arana Martija, Tx. Peillen, E. Larre, X. Kintana, H. Knörr, **L. Villasante**, P. Altuna, J. Haritschelhar, P. Charriton, F. Ondarra, Beñat Oyharçabal, Ibon Sarasola, "Iratzeder", Miren Azkarate, P. Salaburu, A. Irigoyen, J. San Martin.

finkatzeko, azterlanak noraezekoak zirela. Horren erakusgarria da erakundearen bi sail nagusietako bat «Iker» saila deritzona dela, hain justu. Koldo Mitxelena «Iker» saileko buru zelarik, biltzarrak, jardunaldiak eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten, euskalarien topagune eta euskararen azterketarako eta batasunerako aurrerabide gerta zitezen. Hauek guztiak argitaratu eta denen esku jartzeaz ere arduratu ziren.

Ildo beretik, ikerlanetan aritzeko batzorde gehiago sortu zituzten: gramatikakoa, onomastikakoa,

lexikokoa... eta, batez ere, oinarri-oinarrizkoak diren *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*a (1980an), eta Koldo Mitxelenari 1984an agindu zioten *Orotariko Euskal Hiztegia* lanak egiteko erabakiak ere Villasanteren garai honetakoak ditugu.

Oinarriak finkatu behar horri zor zaizkio, era berean, Euskaltzaindiak epe honetan argitara eman dituen hamaika euskal autore klasikoren lanak, horietako batzuk Aita Villasantek atonduak: Lapeyre, Lavieuxville, Mogel...

23

Euskaltzaindiak «Basarri» ohorezko euskaltzain izendatu zuen. Villasante izendapenaren agiria ematen ari zaio Gipuzkoako Diputazioan (1985).



24

Euskaltzaindiaren bigarren sail nagusia ere, «Jagon» saila, epe honetan ez da geldirik egon: Bertsolaritza-Txapelketa Nagusia antolatzea, *Hitz egin* euskara ikasteko metodoa plazaratzea, aipagarriak dira, besteak beste.

Luis Villasante euskaltzainburu izan den aldia, 1970etik 1988ra doazen hemezortzi urteak, duda-izpirik gabe, Euskaltzaindiarentzat oparoa izan da, oso, eta oparotasun horretan ez du ikuskizun gutxi Luis Villasanteren adimen argiak, lanerako gogoak eta esku zuzenak. Eta hau guztia jomuga argi bati begira: sortzetik beretik Euskaltzaindiak eginkizun zuen lanik premiazkoenari, euskararen batasunari begira, alegia. Baina, hau ere esan

behar baita, inolaz ere euskara batua eta euskalkiak elkarren arteko lehian paratu gabe, batuak euskalkien esparrua mendeko hartu gabe: zein bere tokian, zein bere eginkizunetarako.

Egia da batasuna behar-beharrezkoa dabela euskereak, biziko bada. Baina horrek ez dau esan gura, beste aldetik, euskalkiak edo dialektoak baztertu edo galazo behar diranik. Bai batarentzat eta bai besteentzat be geratuten da tokia. Idazmota batzuetarako egokiagoak gerta daitezke euskalkiak. Eta hauxe da Euskaltzaindiaren jarrera auzi honetan. (*op. cit.* 712. or.).



Euskaltzaindiaren sorreraren 75. urteurrena ospatzeko antolatu zen Leioako Biltzarrean (1994/10/03-07), Luis Villasante «Euskara batuaren filosofiaz» txostena jendaurrean irakurtzen (1994/10/03).



Aita Villasanteren lan ugariak –ez da euskal ez erdal autore asko izango horrenbeste lan (eta nolakoak!) plazara duenik– ederki baino ederkiago ispiatzen dituzte Villasanteren kezkak, ibilbidea, lanerako grina bizia.

Ez da, baldinbaitere, alferrikakoa izango lehen ere ahotan hartu dugun Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak atondutako bibliografia berriz ere hona ekartzea. 1992an amaia duen Villasanteren lanen zerrenda 744 lanek osatzen dute. Badira, halaz guztiz, epe horretako lan gehiago zerrenda horretan jaso ez direnak: *Cantabria franciscana*, *Franciscanismo*, *San Antonio de Padua*, *Clausura franciscana*, *Archivo Iberoamericano* edo Kubako *Semanario católico* aldizkarietan plazaratutako artikuluak, esate baterako.

Orduz geroztik besterik ere plazaratu du, ordea: beste frantziskotar batzuekin batean *M^a de Jesús de Agreda* (1992) mistikako lana, Cándido Izagirrereren *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas*

colindantes berrargitaratzen, Gerardo Markuletarekin batean egindako lana (1994), edo umeentzako moduko *Nazareteko Jesusi buruzko gogoetak* (1998) liburuak, eta *Euskera* eta *Aranzazu* aldizkarietan argitaratutako beste hogeitabat artikulu ekar daitezke adibide moduan.

Kopuruak argi asko uzten du agerian nolako langile nekaezina dugun Asisko Frantziskoren jarraitzaile sutsu eta apal hau. Hau dela eta, hain uzta joria lerro gutitan biltzea ez da, ez da hurrik eman ere!, txit samurra.

Laburbeharrez, zein gai jorratu dituen aita Villasantek bere ibilbidearen luze-zabalean ekar genezake. Lanean zehar aipatzen joan garen lan zehatzak berriz aipatzen ibili gabe, honako arloetako batzuk ekarriko ditugu:

Erljioaren alorrekoak aipatu behar dira lehenik. Lan guztietako lehena 1944ko «Artzai eta santu» artikulua da. Honen ondotik hamaika artikulua eta liburu egina da Villasante erlijioari buruz euskaraz eta erdaraz. Artikulu gehienak *Aranzazu* aldizkarian plazara ditu. Liburuetan, berriz, aipagarrienak dira

26



Erlijioa, Villasanteren bizitza.



Tery Ibarrola koinatarekin Arantzazuko mendietan, 1948 aldera. Oso lotuta zeuden biak. Elkarrekin landu eta kalera zituzten «Cuentos vascos» izeneko diskoak 1965-1966 urteetan. Disko hauetan koinatak bildutako ipuinak kontatu zituzten biek. Tery Euskaltzaindiko hainbat jaialdi eta ospakizunetan (1968ko Arantzazuko hartan ere bai) ibili zen ipuin-kontalari.



Euskaltzaindiko egoitzako erretratu ofiziala, Victor Sarriguartek egina. Luis Villasante Aranzazu aldizkari kuttuna eskuan duela.

Jainkoa (1962), *Jesukristo* (1969), *Eliza* (1984), *Kristau Fedea* (1986)... eta, buruen-buruenik, M^a Ángeles Sorazuri buruzkoak.

Gai honi buruzko lanek garbi erakusten dute Luis Villasantek Jainkoa eta euskara biak ala biak sakonki maite dituela. Ez da harritzekoa, hortaz, «Euskal Herriari eman diodan gauzarik ederrena eta baliotsuena erlijioaz idatzi dudana da» esatea.

Euskalaritza ezinbestean aipatu beharra da, gogotik landu baitu aita Villasantek bere bizitza osoan zehar. Aipatuz gain, lehen-lehenik ekarri behar da *H^a de la literatura vasca* (1961) euskal literaturaren historietan, Koldo Mitxelenarenarekin batean, aitzindaria dena. Añibarroren gramatika (1820 inguruan idatzia) Villasantek atondu eta argitaratu zuen lehen aldiz (1970).

Ildo honetan, aipagarriak dira euskal idazle klasikoen lanak ezagutarazteko egindako ahaleginak. Paratzaile-lana izan, nahiz, artikuluen bitartez, idazle baten edo bere lanaren xehetasunen berri ematea edo azterketa zorrotza egitea izan, aita Villasanteren esku trebeei esker, Axular, Domingo Agirre, Joanes Etxeberri, Iturriaga, eta beste asko ez dira garai bateko ezezagunak.

Baina aita Villasantek gure klasikoak oso maiteak izanagatik, ez dio sekula orainari eta etorkizunari muzin egin. Horren seinale da hainbat aldizkaritan (*Arantzazu, Euskera, Egan, Anaitasuna, Euzko Gogoa, BRSVAP, ASJU, FLV, Gure Herria...*) argitara dituen artikulua asko eta asko garaian puri-purian zeuden gaiei buruz zeukan iritzia plazaratzeko baliatu dituela (euskararen batasuna, hezkuntza...). Baita kaleratzen ari ziren lanen iruzkin-kritikak egiteko (*Arantzazu, Salbatore Mitxelenaren poema, Txillardegiren Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria, Koldo Mitxelenaren *H^a de la literatura vasca...*), edo ateratzeko zegoen liburuaren atariko hitzak edo hitzaurrea egiteko ere.

Itzulpenen arloa ere jorratu du Villasantek. Bai gaztelaniatik euskarara itzultzeko, bai euskaratik gaztelaniara, baita euskalki batetik beste batera aldatzeko ere.

Baina itxuraz txikiagoak diren gaiek ere erakarri dute Villasanteren arreta: Oñati ingurua, Arantzazu, Aulesti... Barren-barrenean iltzatuta daramatzan bazter hauetako historia, hizkera, ohiturak... aztertu eta hauen berri era errazean ematen ere aritua da. Lan hauetako askoren etekina ez da hizkuntza-kontuetara mugatzen; bestetarako ere iturri biziak dira.

Gogoan behar da izan, gainera, langintza hau guztia fraide-bizitzak eta euskaltzainburu izateak (hala izan zen epe luzean) hartzen dioten tartetik kanpo egina duela, ezin sinestuzkoa badirudi ere. Halako eskuzabaltasunez eskaini digun lan eskerga gerokoentzat ere baliagarria izango da, dudarik gabe. Zor horren erakusgarriak dira eman zaizkion sariak: Durangoko azokako «Tontor» (1975), Eusko Ikaskuntzak «Giza eta Gizarte Zientzia», Eusko Jaurlaritzak «Lan Onari», UZEIk bere sortzaileei emana (1997)... eta egin dizkieten omenaldiak: arestian aipatutako 1992ko Euskaltzaindiarena eta Gernikako Udalarena, 1997ko Korrikak egina... Horrenbeste eman digun eta horrenbeste dakien gizon honek, ordea, ez du sekula bere burura gehiegi nabarmendu nahi izan,

ingurrien antzera, apal eta bakezale aritu eta mintzatu zaigu beti.

Baina honako hau bere esan gura dot: nire euskal bidea beti izan dala euskerearen aldekoa eta ez inoren kontrakoa, euskara lantzea eta bultzatzea, baina burrukak eta bortizkeria alde batera itzirik. (711).



1997ko «Korrikak» Villasanteri omenaldia egin zion. Hemen Bitoriano Gandiaga, frantziskotarra eta poeta handia, Villasanteri elastikoa jartzen laguntzen.



Eusko Ikaskuntzaren saria jasotzen (1997/10/14).



Arantzazuko mendietako bakean, Miriam Villasante ilobarekin, honen senarra Jon Etxaberekin eta hauen bi seme-alaba Joanes eta Maddirekin, 1999an.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Villasante-Etxebeste familia.*
- *Arantzazuko liburutegia.*
- *Euskaltzaindiko «Azkue» biblioteka.*
- *El Correo egunkaria.*
- *IKER-6 liburua.*
- *Eusko Ikaskuntza.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2000ko abendua
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	Rali, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1621-2 (Obra osoa) 84-457-1625-5
L.G.:	BI-3153-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística